

iritzia

gaurko...

...elkarriketa



Alfonso Garcia la Torre

• ELEKTROAKUSTIKA VI.
JARDUNALDIEN ANTOLATZAILEA •

«Modak agintzen duena da entzuten den musika bakarra»

Elektroakustika Musikaren VI. Jardunaldiak egiten ari dira aste honetan Jesus Guridi Kontserbatorioan eta Casa del Cordon-en

■ Zer da musika elektroakustikoa?

Elektroakustika musika garaikidearen barruan kokatzen da. Musika mota hau, oinarrian, teknologia berrien erabilpenaz baliatuz —informatika, elektronikak...— kontzertuak eta musika produktuak egitea da. Nahiko berria dela iruditzen arren, mende hasieratik datorren mugimendua da.

■ Zergatik ez da ezagunegia musika mota hau?

Irizpide komertzialek asko baldintzatzen dute musika, eta, batez ere, musika garaikidea. Modak agintzen duena da entzuten den bakarra; gaur egun inor ez da arriskatzeko ezaugarriak ez diren musikak ezagutzera emateko, zabaltzeko, eta gizarteari gerturatzeko.

■ Jardunaldi hauek elektroakustika indartzeko balio dezakete?

Bai, noski. Jardunaldi hauetan Jesus Guridi Kontserbatorioaren ikasleak egindako ekoizpenak joko baitira, beste askoren artean. Hala ere, oraindik bide luzea gelditzen zaigu musika elektroakustikoa ezagutarazteko, eta jardunaldi hauek oso egokiak dira zeregin horretarako.

Jon Rejado
GASTEIZ

...esaera

«Haur jaio eta haur hil»

...hizpideak

Lurrikara politikoa eragin du Buesaren hilketak

■ LURRIKARA politikoa eragin du Euskal Herrian Fernando Buesa hil duen atentatuak. PSE-EEko buruzagiaren hilketaren berri izan bezain agudo gogor erreakzionatu dute alderdi politiko eta gizarte eragile gehienek, eta ETArekin jardueraren armatua bertan behera uzteko galdegin dute. Gizartean sortu den zirrararen ez da nolanahikoa izan, ordezkari politiko bat hil izanak, aurpegi publiko bat hil izanak, berezko hunkipena sortu baitu. Ondorioz, mobilizazio jendetsuak egin dira eta gaur kontzentrazio ugari deitu dituzte herrietan, erakundeetan eta ikastetxeetan. Baina zirraraz gain, berehalako ondorio politikoak izan dituen eta izango dituen ekintza izan da Gasteizkoa. Dagoeneko, Ibarretxek EHrekin indarrak gabe zuen ituna hautsi egin du, baina hori baino erabakiorra izan liteke martxoaren 12ko emaitzek utziko duten jokalekuan PSE-EEko buruzagi garrantzitsu baten kontrako ekintza honek alderdien arteko aliantzetan nola eragin dezakeen. Eta abertzaletasunaren kontrako egungo ofentsibaren mugitzeko mugatuen geldidatekeena EAJ izan daiteke. Hala ere, gerta dakigukeen guztia gertatuta ere, derrigorrezkoa da prozesu hau dagoen tokitik ateratzea eta irtenbide hitzartua ahalbidetzeko egin beharreko ahalegin guztiak egitea. ETak egin beharko du berea, Espainiako eta Frantziako gobernuak beraien eta alderdi politiko guztiek berenak eta bi. Arazo politikoak gordin-gordinean segitzen du eta gizarteak horren konponketa eskatzen du.

Aho batez

■ Pinochet Txileko diktadore ohiaren estradizioa eskatu zuten lau estatuak bat etorri dira Jack Straw ministro britainiarrari alegazioak aurkezterakoan: Londresko Gobernuaren iritzia erantzun, Pinocheten osasun egoera hura estraditatu eta epaitzeko modukoa dela uste dute. Estatuon iritzia ez da erabakigarria, eta azken ebazpena, Strawren esku dago berriro. Oraingoan, ordea, zailagoa izango zaio diktadore ohiaren aldeko erabakia hartzea.

Nor bereari eusten

■ IRAk eta Erresuma Batuko Gobernuak ukatu egin dute, nork bere aldetik, erakunde armatuak desarmeari ekitea eta soldadu britainiarren presentzia Ipar Irlandan murriztea elkarri lotzeko posibilitatea. IRAk gezurtatu egin du talde errepublikanoak desarmarako egutegia finkatu duela. Era berean, orain bi aste eta erdi egindako proposamenak Desarmarako Batzordeko mahaitik kanpo daudela adierazi du eta lehenengo astean

agiri baten bidez azaldu-tako jarrera berretsi du. Londresek ere desarmeari eta soldadu britainiarren arteko lotura gaitzetsi du. Blairren gobernuak agertu duenez, «ez da arma trukaketarik izango Ipar Irlandako talde paramilitarrek». Defentsa idazkari Geoff Honn-ek esan duenez, «Gobernu britainiarrak ezin du ezer egin, eta egitea ere ez du pentsatu, segurtasun indarrak eta terroristak parakatzeko».

...pertsonaiak



LUIS MARI BENGOA • Eskuz Binakako Bigarren Mailako txapelketako finalean arituko diren lau pilotariak Besagain enpresakoak dira. Oionen jokatu da finala ostiralean. Luis Mari Bengoa Besagaineko burua da.



JULIAN SANCRISTOBAL • Espainiako Estatu Segurtasunerako zuzendari ohiak Lasa-Zabala kasuan deklaratu du. Sancristobalek baieztatu du Iparraldean poliziak eta guardia zibilak ibiltzen zirela 1983. urtean.



PATRICK M. FITZGERALD • Azken hamar urteetan Bizkaian bizi den artista irlandarraren azken lanak ikusgai daude Bilboko Amaste galerian. Margoak eta marrazkiak dira nagusi, ohiko minimal ukituarekin.

...datua

35 lagun hil dira Nigeria iparraldean, musulmanen eta kristauen arteko borroketan. Xaria lege islamikoa ezartzeko asmoa agertu dute Kaduna estatuko agintariek.

...adierazpena

«Biolentzia ukatzea, elkarriketari baiezkia esatea era bada»

Txema Urquijo

Bakearen Aldeko Koordinadorako kidea

... s k urr

• XABIER OLEAGA •

Uxela



errealista bat aurkitzeko proposamena lantzen ari direnen aurka. Ohituak gaudelako ez dugu erreparatzen paradoxa honen neurriaz.

Baina horrela da, eta esan beharra dago, samin adierazpen legitimoetan ari direnak bezain ozen.

Babes dezagun duela urtebete terdi sueten egoera bat lortzeko urratsak garatu eta bultzatu zutenen ausardia. Orduotan ahoan

mendekua baino besterik ez dutenen aurrean esan dezagun 1998.eko iraillean hasi eta urtebete luzez bizi izan duguna posible dela berriro eta betirako ere. Ez igandean Donostian manifestatu zirenek proposatzen dutenen bidetik, ez Ermuako Foroak Brusselan utzi zuen mezua bidetik. Itxaropenak bere zirrikitua du, erreminitsuaren proposamenen gainetik.

Egoera hau inmobilismoa legitimatzeko erabili nahiez aho bete zaratsuan ari direnen aurrean burua duinki altza eta konponbide razionala ikusi eta berarekin konprometitzeko prest dagoenik ez da falta. Txalotu ditzagun horiek lintxamendu irrazionalen ito nahi izango dituzten ordu hauetan. Zeren eta aste batzu barru hauteskundeak izango dira, bai, baina Madrillgo Gobernu osatuko duenak osatuko duela, egoera hau konpondu beharreko erantzukizuna izango du hiritarron aurrean. Egoera hau luzatzen ez uzteko erantzukizuna izango du. Burua argi iritsi dadila Moncloara. Uxela.